

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Alloko SCAREN fabrika berriak zonaldea garatzen lagunduko duela espero du Barkos Lehendakariak

Enpresak 18,5 milioi euro inbertitu du 13.000 metro koadroko biltegi batean

Viernes, 06 de noviembre de 2015

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek eta Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik Alloko SCAREN Nazioarteko Banaketa Zentroaren inaugurazioan izan dira gaur goizean. Ekitaldi horretan, Gobernuko arduradunek era oso positiboan baloratu dute 18,5 milioi euroko inbertsioa eta biltegi berriak sortutako lanpostuak; 13.000 metro koadro ditu, fabrikari egindako produktuak biltegitzeko erabiliko da eta merkatu iberiarrean banatuko dira, bai eta Europar Batasuneko alboko herrialde batzuetan ere. Alloko alkateak, SCAko lehendakariak eta Nafarroako fabrikako zuzendariak ere parte hartu dute inaugurazioan.



Barkos Lehendakaria Alloko SCAREN fabrika berria inauguratzen.

Barkos Lehendakariak bere [agerraldi](#)an azpimarratu duenez, Alloko fabrika zabaldu izana "berri bikaina da, are gehiago oro har krisi ekonomikoaren gogortasunak halako berri gutxi eman dizkigun garai batean". Arrazoi hori dela eta, SCA enpresari zorianak eman dizkio "18,5 milioi euroko inbertsio horrengatik, eta Nafarroako zonalde honen garapenean eragin oso ona izango duela ziur nago". Kalitatezko enplegua sortzearen alde egin du, eta hori "berrikuntzan oinarritutako ekoizpen-eredu berri baten aldeko apustuari oso lotuta dago. Horretarako, azken urteotako joera zuzendu behar dugu, alor horretako inbertsioa asko murriztu baita".

Alde horretatik, "Nafarroako Gobernuak SCA enpresak egindako ekintzak era oso positiboan baloratzen ditu; berrikuntza oinarritzeko elementu modura baliatu du Alloko biltegi automatizatu berri honen logistika-eraginkortasuna maximizatzen".

Zentro berriak, Alloko fabrikako mapa aldatzeaz gain, orduko 150 palet biltegitzen uzten du, eta denbora-tarte

horretan 7 kamioi kargatzen. Izan ere, zortzi mailetan banatutako instalazio berriek 20.000 palet-oinarri sartzeko ahalmena dute edo gauza bera dena, 600 bat kamioi. Maila bakoitzean, trolley mekaniko bat arduratzen da paletak biltegiko 130 metrotan zehar horizontalki mugitzeaz.

Bestalde, erantsitako ekoizpen-lerroei esker, fabrikako ekoizpenaren ahalmena bi aldiz handiagoa da. SCA enpresak egindako inbertsioarekin, fabrikako plantilla % 50 handitu da 2012an Georgia Pacific-i erosi zitzaionetik; hala, 410 lançile daude bertan çaur egun.



Barkos Lehendakariak "oso modu positiboan" baloratu du SCA enpresak egindako inbertsioa.